

HORRA! HORRA! Piezen letrak

ASMAKIZUNAK

- Aita handia, ama ttikia, atorra gorria eta mamia zuria. Zer da? (Gaztaina)
- Burruntzali baten barnean ogi xerra bustia (Mingaina)

ERRANAK / ESAPIDEAK

- A ze parea, karakola eta barea!
- Altsu eta maltsu, biak igualtsu!
- Irrikaz nago!
- Aski gustura
- Bapo
- Hitzontzi hutsa
- Kalaka hutsa
- Ttartari
- Kaka zaharra

FORMULA

Ezkutatua zaudelarik errateko

- Kirik!

JOLASAK

Ezkutaketan aritzeko

Kiriketan

Kiriketan, konketan,
eperra xokoetan.

Balio du!

Kirik!

Behatzekin jolasteko

Honek erosi zuen txori txiki bat (Azpitoluetakoa)

Honek, txikitxo honek, erosi zuen txori txiki bat,
honek egin zion gatza eman, e?
beste honek egin zuen erretzen paratu,
honek egin zuen pixka bat probatu,
eta lodikote eta pikaro zikin honek egin zuen den-den-den-dena jan! Den-dena!

(Gidoirako idatzitakoa)

Honek erosi zuen txori txiki bat,
honek egin zion gatza eman,
honek egin zuen erretzen paratu,
honek egin zuen pixka bat probatu,
eta pikaro zikin honek egin zuen dena-dena jan!

KANTUAK

Orantzaro begi-gorri

Orantzaro begi-gorri,
bart hamaiketan,
Suarrengo erreketan!

Olentzero joan zaigu

Olentzero joan zaigu,
mendira lanera,
intentzioarekin
ikatz egitera.

Horra! Horra!

Gure Olentzero!

Pipa hortzetan duela

eserita dago.

Kapoiak ere baditu

arrautzatxoekin,
bihar meriendatzeko
botila ardoarekin!
Botila ardoarekin!

Olentzero buru handia
entendimentuz jantzia,
bart arratsean edan omen du
hamar arruko zahagia.

Ai, urde tripaundia!
Tralaralala, tralaralala!

Ai, urde tripaundia!
Tralaralala, tralaralala!

ZOTZ EGITEKO

Bat, bi, hiru, lau

Bat, bi, hiru, lau,
saguzarrak jan al hau?
Zapateriko alkate,
Maria, Maria, penate.
Ez dirudi, badirudi,
konportako ipur-txuri!